



Azpeitiko Udala

NAGORE ALKORTA ELORZA Azpeitiko Udalaren alkateak

Aurrekariak:

Udalatzak **2022ko martxoaren 8an** egindako bilkuran Azpeitiko Baratze parkeko lursailen erabilera, gozamena eta aprobetxamendua arautzeko eta horiek esleitzeko Erregelamendua onartu zuen. Araudiaren edukiari buruzko informazioa eskuragarri dago Azpeitiko Udalaren web orrian, Baratze Ekologikoen Programaren atalean.

Azpaldiko urtetan bideratzen duen baratza-ekologiko programaren bidez udalak herriko bizilagunei eta hainbat kolektibori, bere gain dauden lur-zatiak uzten dizkie kontsumo pertsonalerako barazkiak lor ditzaten, eta, batez ere, ingurumen-hezkuntza hedatzen lagunduko duen esperientzia har dezaten. jokabide parte-hartzaileak eta arduratsuak sortuz.

Erregelamenduko 11 eta 12. artikuluek diotenaren arabera Udal honen dagokion deialdia egingo du programa honen baitan esleipendun izateko. Une honetan Erreglamenduaren edukia jendaurrean dago eta horregatik deialdiaren izaera tramitazioan eman litezkeen aldaketetara baldintzatua izango da. Gaur egun martxan dagoen baratza-programa amaitu aurretik deialdi honen baitan aurreikusten den zozketa egitea beharrezkoa da, eta horregatik deialdiaren prozedura honi hasiera emango zaio.

Deialdiak erabilera lizentziaren onuradun izateko baldintzak jaso ditu erreglamendua kontuan izanik, eta baita esleipena egiteko jarraitu behar den prozedura ere: eskaeraren aurkezpena, balorazioa, zozketa eta esleipena.

Bere aldetik, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearenak arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta hori garatzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak diotenarekin bat prozedura bitarteko elektronikoen bidez bideratzeko neurriak hartu dira. Herritarra programaren, erregelamenduaren eta deialdiaren berri izango dute eta eskaera elektronikoki egiteko aukera izango dute.

Ingurumen alorreko Batzorde Berriemaileak aldeko irizpena eman dio deialdiaren tramitazioari erreglamenduaren tramitazioan eman litezkeen baldintzak kontuan izanik.

Aipatutako aurrekariak ikusita, eta eskumenei dagokienez, berriz, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua kontutan izanik, ERABAKI DUT:

Baratza Ekologikoen programaren baitan Azpeitiko baratze parkeko lursailak esleitzeko prozedurari hasiera ematea, erantsitako eranskinaren arabera.

Herritarra programaren, erregelamenduaren eta deialdiaren berri izango dute Udalaren Iragarki taularen eta web orriaren bidez, eta eskaera elektronikoki egiteko

aukera ere izango dute.

Azpeitian, 2022ko apirilaren 6an.



Ngoen
Miguel



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO BARATZE EKOLOGIKOETAN IZENA EMATEKO DEIALDIA 2022-2030 PROGRAMA

Azpeitiko Udalbatzak 2022ko martxoaren 8an egindako bilkuran Azpeitiko baratze parkeko lursailen erabilera, gozamena eta aprobetxamendua arautzeko eta horiek esleitzeko prozedura onartu zuen. Deialdi honen bidez abian jarritako baratze ekologikoetarako sarbide eta erabilera-irizpi-deak arautuko dira.

Art. 1 Deialdiaren xedea

Azpeitiko baratze parkeko lursailen erabilera arautzen duen erregelamenduko 11 eta 12. artikuluek diotenaren arabera, Udal honek deialdia egiten du azpeitiarrek baratze parkeko lursail bat eskuratzeko prozeduraren esleipendun izateko

Araudiaren edukiari buruzko informazioa eskuragarri egongo da Azpeitiko Udalaren web orrian (www.azpeitia.eus), Hirigintza eta Ingurumen Sailaren baitako Ingurumen arloko Azpeitiko Baratze Ekologikoen Programaren atalean.

Art. 2 Eskaera egin ahal izateko bete beharreko baldintzak

Azpeitiko baratze parkeko lursailen erabilera arautzen duen erregelamenduko 10. artikuluak dioenaren arabera Azpeitiko baratze ekologikoen erabilera lizentziaren onuradun izan ahalko dira Azpeitiko udalerrian erroldatuak dauden herritarrak. Ezinbestekoa izango da esleipenerako deialdia argitaratu aurretik, gutxienez, hiru urte erroldatuta izatea.

Gainera, nortasun juridikoa duten erakundeeek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta hezkuntza eta ingurumena sustatzeko

Mediante Pleno de fecha 8 de marzo 2022 se aprobaron las Bases para la Convocatoria de Huertos Ecológicos de Azpeitia 2022-2030. Esta convocatoria tiene por objeto regular los criterios de acceso y uso de los huertos ecológicos puesto en marcha entre el Ayuntamiento de Azpeitia y la empresa de servicios encargada de la gestión.

Art. 1 Objeto de la convocatoria

De acuerdo con lo establecido en los artículos 11 y 12 del Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Azpeitia, este Ayuntamiento procede a realizar la convocatoria para que los azpeitiarras puedan optar a la adjudicación de una parcela del parque de huertas.

La información del contenido del Reglamento estará disponible en la página Web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus dentro del Departamento de Urbanismo y Medio ambiente sección Medio Ambiente, en el apartado de “Programa de Huertas Ecológicas de Azpeitia”

Art. 2 Requisitos para poder realizar la solicitud

Según lo establecido en el artículo 10 del reglamento, podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio, las personas empadronadas en Azpeitia y que efectivamente residan en la localidad durante al menos tres años antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación.

Podrán participar además Entidades con personalidad jurídica que tenga como fin un interés en la promoción de la educación-

helburua baldin badute.

Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Azpeitiko Udalarekiko zerga-betebeharra et beste edozein motatakoak ordainduta izatea.
- b) Familia-unitate bereko kideren bat ez izatea beste baratze ekologiko baten erabiltaile.
- c) Ez izatea nekazaritza-járduerarako ego-kiak diren beste landa-lur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko beste edozein kide ere, salbu eta eskatzaileak ezgaitasunen bat duen pertsonaren izaera aitortua badu eta lursailek ez baditzte betetzen baratze gisa erabiltzeko behar diren irisgarritasun-baldintzak.
- d) Araudi honetan zehaztutako ez-betezteren batengatik zehapenen bat jaso ez izana.

Art 3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Erregelamenduan 11. artikuluaren 3. puntuaren ezartzen den bezala, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira :

- Emakidarako eskaera orria behar bezala beteta:
 - . I eranskina: eskaera berria egiten den kasuan
 - . II eranskina: Eskaera egiten den unean lursail baten erabiltzailea izanez gero (lursail hori mantendu nahi den ala ez adierazi beharko da).
- NANaren edo legez ordezten duen agiriaren fotokopia. Nortasun juridikoa duten erakundeen kasuan, erakundearen estatutuak eta ordezkaritza eguneratua aurkeztu beharko dira (beharrizkoa izango da programan parte hartzeak ingurumen-hezkuntza sustatuko duen interes bat izatea

ambiental.

Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Azpeitia.
- b) Que ningún miembro de una unidad familiar sea usuario de otro huerto ecológico.
- c) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas en cualquier lugar, salvo que el solicitante tenga reconocida la condición de persona con discapacidad y los terrenos no cumplan con las debidas condiciones de accesibilidad para ser utilizadas como huertas.
- d) No haber sido sancionado por incumplimiento previsto en el presente reglamento.

Art. 3 Documentación a presentar

Según lo establecido en el punto 3 del artículo 11 del reglamento, deberán presentarse los siguientes documentos:

- Hoja de solicitud debidamente cumplimentada:
- . Anexo I: en el caso de una nueva solicitud
- . Anexo II: En el caso de estar disfrutando de una parcela en el momento de la solicitud (deberá expresar su voluntad de querer mantener o no la parcela).
- Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya. En caso de entidades con personalidad jurídica será necesario aportar los Estatutos y la representación actualizada de la Entidad (será necesario que su participación en el programa tenga como fin un interés que promueva la educación-



Azpeitiko Udala

helburu).

. Deialdi honetako 2. artikuluan onuradun izateko ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena. (Zinpeko aitorpena I edo II eranskinean barneratuta dago).

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

Eskabideak, gainerako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztu ahal izango dira, Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (www.azpeitia.eus), izapideen atarira sartuta -Baimenak/Lizentziak-, eta horretarako dagoen berariazko inprimakia beteta.

Eskabidea, gainerako dokumentazioarekin batera, aurrez aurre aurkeztu ahal izango da Udaletxeko Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuan (Plaza Nagusia, 5-1. solairua). Kasu horretan, eskabidea egiteko berariazko inprimakia zerbitzuan bertan emango da.

Eskabideak deialdi hau Udalaren web orriko eta iragarki-oholeko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 5ean amaituko da.

Epez kanpo aurkezten diren eskabideak zozketaren ondoren sortuko den itxaron-zerrendan sartuko dira, baldin eta eska-tzaileek baratze baten esleipendun izateko araudian eskatzen diren baldintzak betetzen baditzute.

Zerrenda honetarako ezarritako hurrenkera honako hau izango da:

1.- Lursail bat lortu ez duten eska-tzaileak, zozketako hurrenkeraren arabera.

2.- Deialdiaren epea amaitu ondoren eska-bidea aurkeztu duten gainerako eska-tzaileak, eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoaren arabera.

Zerrenda hori programa 2030eko ekainean amaitu arte mantenduko da.

ambiental)

. Documentos o declaración jurada de que cumple las condiciones exigidas para ser beneficiario del programa, indicadas en el artículo 2 de esta convocatoria. (La declaración jurada está incluida en los anexos I y II).

Art. 4.- Forma y plazo de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes, junto con el resto de documentación, podrán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Azpeitia (www.azpeitia.eus), accediendo al portal de trámites -Baimenak/Licencias- y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos

La solicitud junto con el resto de la documentación podrá presentarse en persona en el Servicio de Atención Ciudadana SAC del Ayuntamiento, Plaza Nagusia, 5-1º piso. En este caso, el formulario específico para realizar la solicitud se facilitará en el propio servicio

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el tablón de anuncios de la página Web y tablón de anuncios del Ayuntamiento, y el plazo de presentación finalizará el día 5 de mayo de 2022.

Las solicitudes que se presenten fuera de plazo se incluirán en la Lista de Espera que se generé después del Sorteo, siempre que los solicitantes cumplan las condiciones exigidas en el Reglamento para ser adjudicatario de una huerta.

El orden establecido para esta lista será el siguiente:

1.- Solicitantes que no hayan obtenido una parcela, según el orden del Sorteo.

2.- Resto de solicitantes que hayan presentado una solicitud tras la finalización del plazo de la convocatoria, según orden cronológico de presentación de solicitudes.

Esta Lista se mantendrá hasta la finalización del programa en junio de 2030.

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dagoen edo beste edozein administrazioek egindako dokumentazioa ez aurkezteko, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaren arabera. Azpeitiko Udalak zuzenean eskatuko dizkio sektore publikoko edozein erakunderi behar diren datuak, oinarriean eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hala ere, eskatzaileak aurka egiteko eskubidea du, eta aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 EB Erregelamenduaren 21 artikulua).

5. artikulua.- Hautatzeko eta ebazteko irizpideak.

Hirigintza eta Ingurumen Saila arduratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeaz eta Alkatzari ebaZen-proposamena egiteaz. Norgehiagokarik gabeko irizpideak aplikatuko dira. Hau da, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiak onartuko dira.

Dagokion ebaZpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik zenbatzen hasita.

6. artikulua.- Zozketa eta itxaron-zerrenda.

Lursailak esleitzeko zozketaren eguna eta ordua behar bezala jakinaraziko dira, tokiko prentsaren eta Udalaren web orriaren bidez.

Ondoren, itxaron-zerrenda egingo da, 4. atalean adierazitakoa oinarri hartuta.

7. artikulua.- Datu pertsonalen babesia

Jakinazten da zure datu pertsonalak Azpeitiko Udalaren ardurapeko datutegi batean sartuko direla (Plaza Nagusia 5, Azpeitia), eta datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta

Los interesados tienen derecho a no aportar la documentación que ya se encuentre en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración según el artículo 28.2 de la ley 39/2015 del procedimiento administrativo común. El Ayuntamiento de Azpeitia recabará directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para comprobar el cumplimiento de las condiciones requeridas en las Bases.

No obstante, el solicitante tiene derecho a oposición y en caso de oponerse, deberá justificar las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento UE 2016/679 de Protección de Datos).

Art. 5.- Criterios de selección y resolución.
El Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente será el encargado de evaluar las solicitudes presentadas y hacer la propuesta de resolución a la Alcaldía.

Se aplicarán criterios de concurrencia no competitiva. Esto es, serán admitidos todos aquellos solicitantes que cumplan los requisitos establecidos.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de dos meses a contar desde la presentación de la solicitud.

Art. 6.- Sorteo y Lista de Espera.
La fecha y hora del Sorteo a celebrar para la adjudicación de las parcelas será debidamente informada a través de la prensa local y pagina web del Ayuntamiento.

Posteriormente se confeccionará la lista de espera en base a lo señalado en el apartado 4.

Art. 7.- Protección de Datos de carácter personal

Se informa que sus datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es el Ayuntamiento de Azpeitia (Plaza Nagusia 5, Azpeitia) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, recti-



Azpeitiko Udala

aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzula, horretarako idazki bat bidaliz.

Zure datu pertsonalak baratze ekologikoen programaren deialdia kudeatzeko eta ebazteko erabiliko dira, deialdiaren interes publikoan eta deialdian parte hartzeko eskaeran oinarrituta.

Eskatzaileei buruzko datuak zerga-administracioari, fiskalizazio-organoei, kontabilitate-kontrolerako organoei eta banku-erakundeei jakinaraz dakizkieke, abonuak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie, lege-mailako arauetan jasotako kasuetan.

Programak irauten duen bitartean gordeko dira datuak.

Zure datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideak erabiltzeari dagokionez, helbide honetan jar zaitezke harremanetan:
dbd@azpeitia.eus

Deialdi honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkez dakiode Udalari, HILABETEKO EPEAN, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdia, udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da, baita Udalaren web gunean ere, www.azpeitia.eus

Azpeitian, 2022ko apirilaren 6an



Nagore
Nagore

ficación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido a la misma.

Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria del programa de huertas ecológicas, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de ley.

Los datos serán conservados durante la duración del programa.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: dbd@azpeitia.eus

Contra la presente convocatoria podrá interponerse RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el siguiente a su publicación en la página Web. No obstante, con carácter previo a la interposición del recurso contencioso-administrativo podrá interponerse RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el mismo Ayuntamiento en el plazo de un MES a partir del siguiente día al de su publicación.

La convocatoria se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento www.azpeitia.eus

Azpeitia, 6 de abril de 2022

